

Berrigara



Txakur nordikoak Gorlan

Txakur Ieren VI. edizioa domekan

APROBETXA ITZAZU APIRILEKO ESKAINTZAK!

400.000

pezetarainoko deskontua izan dezakezu
Xsara edo Xantia bat erostean!

ION AUTOAK  **CITROËN**

Amillaga 36, Bergara Tf. 943 76 47 49 / 73



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

VOLKSWAGEN LUPO
kotxe baten zozketa!!
Bai, zure ikusmenak
ondo dio :
**VOLKSWAGEN
LUPO**
zoragarri bat!!



5.000 PTAK PROSKEA BAKITZERO TXARTEL BAT

P.S. Nº 42196



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:
• MULTIOPTICAS-en kreditu-txartela. Diru bark
eroskeko modurik errazena.
• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan aldatzeko
modua izango duzu, balere errekaru barik.




LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB"
PROGRAMAKO
PUNTUAK

VOLKSWAGEN LUPO BATEN ZOZKETA

ALZAS elektragintza

Korronte alterno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
**konponketa eta
bobinaketa**



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxe: 943 76 62 99



Juan Martin Elexpuru / Idazlea

Potzuak eta pasiantiak

Beste askotan lez, piszinetan aldatu, hankak luzatu eta banoia antxintxikara, Plazentzia aldera. San Lorentzon kamiñua pasau eta trenbide zaharrian sartu naiz; jentia pasiuari haruntz eta honuntz; tailer baten atletik buzodun bat geratu jat begira, nora ete joiak hori holako prixiakin, esanez moduan; makiña bat golfo mantentzen juau. Leengo potzuak, leengo izerdi tantak.

Etxeberritta aldian bidia estutu eta lakartu egin da; iturririxan bi andra koloregorri ura eraten. Badakit aurrerago ortuak darella ezker-eskuma, eta ortuzain jubilauek lanian, baiña gaur ez tittut ikusi, eztaukat begirik lurrerako baiño; nahikua lan daukat potzuetan ez tittutzen. Zer esaten dot potzuak, honek pantanuak die, eta dezentiak gaiñera. Bost edo sei andra illaran doiaz ezkerretik, zelaira igota, nik eskumatik hartu dot, alanbriak jan biharrian; hala ta be txipriztindu dittut. Eztie asko kejau, hemen danok ezagutzen eta errukitzen dogu alkar. Handik Mekoladeraiñokua

slalom saio bat da, potzu hau eskumatik, bestia ezkerretik, eta hurrengua erdittik, zer erremeixo.

Lehen hasarretu be egitten giñan; oin dala hiru bat urte eskabidia be egin gontsan udalari bidia konpontzeko eta argitxo batzuk ipintzeko, baiña alperri. Lehengo potzuak oin pantanuak die, eta laster txalupan ibilli biharko dogu.

Dozenaka lagun pasiatzen, andrak gehixenbat, biñaka, launaka, seiñaka... eupadia egin dotset batzuei atzetik,

*"Bost edo sei andra illaran
doiaz ezkerretik, zelaira igota,
nik eskumatik hartu dot,
alanbriak jan biharrian;
hala ta be txipriztindu dittut"*

baina ez tie akordau eta frenau egin bihar izan dot. Tinbría—azelako asmaziñua—jarri biharra daukagu ibilgailu bizkorrok. Oiñezko, antxintxikari eta bizikletadun, danok moldau bihar dogu bide estu honetan, beti be pasiuari dabilenari ahal danik eta traba gutxien egiñaz.

Ehundaka lagun ibiltzen da egunero trenbidian. Eztakitt zergatik, baina gizon "inportante" gutxi ikusiko dozu pasiatzen, aginpideko jente gutxi. Ai, zenbaittek denpora puxka bat galtzen ikasiko baleu, zenbat irabaziko giñuken danok! Jubilauta gero be, ustez zerbait izan dana nekez ikusiko da pasiuari. Eztakit bajezia pentsatzen jakuen ala aurretiko lanak dittuen.

Botaziñuak laster datoz; hamabost bat egun lehenago. igual ikusiko dogu udaletxeko kamioia zuluak araez tapatzen. Udako leengo zaparrariak eruago dittu ibaira.

Ba ei dago proiektua Maltzagatik Gatzagarako trenbide zaharra konpontzekua. Bai ei dago, bai. **B**

■ barruan



J. Mari Lakuntza

DYako kidea

*"Orain lehen baino lan
gehiago daukagu,
baina boluntario
kopurua berdina da"*

8.



Maite Usabiaga

Saskibaloia jokalaria

*"Orain arteko emaitzak
taldekideon arteko
harreman onei
esker lortu ditugu"*

21.



M. Mar Fernandez

Tabernaria

*"Guardiola gustatuko
litzaidake tabernara
sartzea. Laranja ura
aterako nioke"*

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1976. Apirilaren 9an, Erramu Zapatu egunez, Eder-Gai arte erakusketa aretoa zabaldu zen Bidekurutzeta kalean. Arrieta, Azkargorta, Loidi, Okina, Leturia, Eguren, Juaristi eta Ugalde bergarar pintoreen margoak izan ziren ikusgai, bertan antolatu zen lehen erakusketan.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1506. Apirilaren 7an Xabierko jauregian Frantzisko jaio zen.

1644. Apirilaren 8an Axular idazlea hil zen.

1910. Apirilaren 3an Donostiako Kontxan Le Blon abiadorea, bere monoplanean, lurra jo eta ito egin zen.

1922. Apirilaren 10ean

Emakume Abertzale Batza sortu zen.

1980. Apirilaren 9an Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria hautatua izan zen.

1992. Apirilaren 5ean Miren Azkarate emakumezko lehen euskaltzain oso bihurtu zen.

1994. Apirilaren 4an Victor Azkona, Euskal Herrian egindako zinemaren aitzindaria, hil egin zen.

MUNDUAN GERTATUA

1936. Espainiako Parlamentuak, Alcalá Zamora Errepublikako presidente kargutik kendu eta, bere orde, Manuel Azaña aukeratu zuen.

1956. Apirilaren 7an Marokok independentzia lortu zuen eta Espainiarengandik banandu egin zen.


1973. Apirilaren 8an Pablo Picasso zendu zen.

1992. Europako Parlamentuak Maastrichteko tratatua berretsi zuen.

1993. Apirilaren 8an Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorra Mazedonia, Jugoslaviako errepublika ohia, onartu zuen.

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Tenporek udaberrirako iragarri zuten moduan, astebukaeran ere eguraldi nahasia izango dugu. Aste Santua ederra izan dugu aurten, baina azken egunak ez dira eguzkitsuak izan. Zapatu eta domekan hodeiak nagusituko dira zeruan, tenperatura fresko samarrak izango ditugu eta euria egin dezake. Halere, urdinguneak ere zabalduko dira.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: martxoak 31



Ilbehera: apirilak 9



Ilberri: apirilak 16



Ilgora: apirilak 22

Eguzkia

Domeka, apirilak 11



Sortu: 07:46



Gorde: 20:54

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 25	16	8	17,1
Eguakitza 26	11	3	5,9
Zapatua 27	12	8	26,2
Domeka 28	13	6	1,6
Astelehena 29	19	3	-
Martitzena 30	23	3	-
Eguaztena 31	25	3	-
Eguena 1	20	9	-
Eguakitza 2	23	6	-
Zapatua 3	21	9	-
Domeka 4	25	6	-
Astelehena 5	28	7	-
Martitzena 6	14	7	0,6
Eguaztena 7	14	11	8,1

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 2

2-7-23-28-31-37 (osag.1/itz.0)

Astelehena 5

3-5-10-22-32-36 (osag.43/itz.6)

Martitzena 6

4-6-30-33-38-43 (osag.22/itz.3)

Eguaztena 7

24-32-40-41-45-48 (osag.1/itz.7)

PRIMITIVA

Zapatua 3

3-17-20-23-39-45 (osag.27/itz.0)

Domeka 4 Saritzarra

28-29-35-39-44-47 (osag.37/itz.6)

ONCE

Eguakitza 2: 25.643 (142 seriea)

Astelehena 5: 82.026

Martitzena 6: 24.829

Eguaztena 7: 07.803

hamaika ikusteko jaio ginen!

Tetraplegikoendako laguntza

Sorbaldako muskuluak apur bat mugi ditzaketen tetraplegikoek objektuak hartu ahal izango dituzte *Neuro Control Freehand Systemari* esker. Sorbalda mugitu eta seinalea sortarazten da zeina pertsonak patrikan daraman bobina batera iristen den. Bobinak, besoetan ezarritako elektrodo batzuetara bidaltzen du seinalea eta hauek eskuetako muskuluei uzkurto arazi egiten diete.

Farmaziak

Eguakitza 9:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Zapatua 10:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Domeka 11:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Astelehena 12:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Martitzena 13:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Eguaztena 14:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Eguena 15:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Ogia

Domeka 11: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 65

zorion agurrak



Aitor Conti
Apirilaren 12an
7 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Familia.



Xabier Zabaleta
Apirilaren 11n
20 urte.
Urte askotarako!
Ni.



Izaskun Murrikastillo
Apirilaren 12an. Urte askotarako! Etxekoak, Saioa eta Leire.



Idoia Regorigo
Apirilaren 11n
4 urte.
Urte askotarako!
Ekaitz eta familia.



Asier Gonzalez
Apirilaren 12an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Luis Albistegi
Apirilaren 10ean
urtebetetzea.
Urte askotarako
aita!



Maialen Moreno
Apirilaren 14an
6 urte. Urte askotarako! Ama, aita eta familiakoak.



Garazi Larrea
Apirilaren 13an
12 urte.
Urte askotarako!
Senideak.



Argine Alberdi
Apirilaren 14an
20 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



Bittor Poza
Apirilaren 13an
3 urte.
Urte askotarako!
Ama, aita eta Lorea.



Rosa Maria Briz
Apirilaren 11n
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ander eta etxeoak.



Julen Alvarez
Apirilaren 10ean
12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

URTEURRENA

Jose Mari Mujika Alustiza



Lehen urteurrenako meza
domekan, apirilak 11,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

hildakoak

- BERGARA**
Petra Agirrezabal Arizabaleta
Martxoak 25, 86 urte
- Maria Carmen Garcia Lopez**
Martxoak 26, 52 urte
- Basilio Unamuno Lizarralde**
Martxoak 31, 78 urte
- Ines Rubio Hermosilla**
Apirilak 1, 67 urte

jaiotakoak

- BERGARA**
Martin Larrañaga Zabala
Martxoak 25
- Ainhoa Gallastegi Arana**
Martxoak 31

mezak

- Santa Marina**
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
- San Pedro**
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
- Osintxu**
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
- Elosu**
Domekak: 10:00.
- Ubera**
Domekak: 10:30.
- San Juan**
Domekak: 11:00.
- Basalgo**
Domekak: 13:00.
- San Prudentzio**
Domekak: 10:30.
- Labegarieta**
Domekak: 11:00.
- San Lorentzo**
Zapatuak: 20:00.
- Angiozar**
Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.
- Monja Zaharrak**
Domekak: 19:30.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
- Mizpirualde**
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
- Mariaren Lagundia**
Domekak: 10:00.
Zapatuak eta lanegunak: 09:00.
- Antzuola**
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
- Uzarraga**
Domeka: 10:00.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Argimutill

Kriseiluari (kurtzelua) eusteko hiru hankako zutikoa.

JOSU OKINA

Berrigara 363an, **APIRILAREN 16a eta 22a**
bitarteko lagunen zorion agurrak bakarrikargitaratuko dira.

PESA autobusak

- Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.
- Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30; 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.
- Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).
- Bergara-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.
- Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.
- Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.
- Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.
- Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.
- Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.
- Eibar-Bergara.** Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.
- Bergara-Donostia (Autopistatik).** Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.
- Bergara-Donostia (Tolosatik).** Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.
- Donostia-Bergara (Autopistatik).** Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.
- Donostia-Bergara (Tolosatik).** Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.
- Bergara-Bilbo.** Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunaak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.
- Bilbo-Bergara.** Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoak datorren domekan, hilak 18, 17:00etan Mariaren Lagundian. Sarrerak Ariznoa tabernan, ldatzin eta Kultur Etxean salgai.

MUSIKA

► **Jazzes blai Elorrioko Ateneoan**, bihar zapatua 00:30etan.

ERAKUSKETA

► **Bingen De Pedronen** margo erakusketa Eibarko Portalea aretoan (Bista Eder, 10), apirilaren 25era arte.

IKASTAROA

► **Pol-Pol Argazki Taldeak** antolatuta, zuribeltzeko teknikei buruzko bost asteko ikastaroa Gorka Salmeron argazkilariren eskutik, maiatzaren 3tik aurrera, astelehenetik ostegunera 19:00etatik 21:00etara. Plaza mugatuak. Izen-ematea (10.000 pezeta) 943 76 30 90 zenbakian.

LEHIAKETAK

► **II. Abdon Juaristi pintura lehiaketa.** Kartelen gaia zezenak eta Bergara izango da. Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 20a

ERAKUSKETA

Olatz Goibururen margoak

Non: Nahikari tabernan
Noiz: apirilaren bukaerara arte

Olatz Goiburu, Zumaian bizi den le-gazpiarraren margo erakusketa zabaldu zen aurreko astean Nahikari tabernan. Olatz Goiburu Arte Ederretan lizentziatu zen 1991n Leioako Fakultatean (31 urte ditu) eta, bere ikasketekin zerikusirik ez duen lan batean aritu arren, ez dio margotzeari utzi. Duela gutxi Ordizian eta Legazpin (Jaione Berasategirekin batera) bere lanak erakutsi ditu eta Nahikarin, berriz, formato txiki-kokozko marrazkiak zintzilikatu ditu. Guztira, 25 lan dira tabernan ikusgai daudenak. Duela urte batzuk ere Nahikarin beste erakusketa bat egin zuen Olatzek eta Bergaran dituen lagunek berriro bere lana erakustera animatu zuten. Olatzek esaten digu-

nez, "egia esan horrelako erakusketetan gutxi saltzen da, baina ahal dudan guztietan nire lana ezagutzera ematen saiatzen naiz, erakusketak egiteko aukera gutxi dago eta. Zenbat eta jende gehiagok zure lanaren berri izan, hobeto".

Nahikarin jarritako lanak definitzera-koan, Olatzen hitzetan, "ilustrazio modukoak dira eta tinta, akuarela, lapitza, leja eta akrilikoarekin egin ditut. Ez dira aurtent egindako lanak, orain tamaina handi-goko lanak egiten ari naiz eta. Koadro ba-koitzean istorio bat azaltzen saiatzen naiz eta burura etortzen zaizkidan gaiak islatzen ditut, era askotako gaiak daude. Hala ere, ez dira liburu batean aurki daitezkeen ilustrazioen moduko marrazkiak".



Formato txiki eta berezidun lanak erakusten ditu Olatz Goiburuk.

eta 30a bitartean, 16:00etatik 21:00etara. Irabazleak 150.000 pezeta eta plaka eskuratuko ditu. 943 77 91 58.

► **Pazkuetako pegatina lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak. Taberna eta ikaste-txeetan lagatako kaxetan laga

daitezke haien inguruko esal-diak, apirilaren 21era arte.

DEIAK

► **Odol ateraldia** eguaztene-an, apirilak 14, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **EAJren ohiko Uri Batzarra** eguaztenean, hilak 14, 20:00etan Batzokian.

► **San Joxepe.** Donostiako **La Perla** termetan bainuak hartzeko autobusak izango dira apirilaren 26an, 28an eta 30ean eta maiatzaren 3an,

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Agirrebeña
JATEETXEA
Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

URRATS
TABERNA
KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN
Ibargarai 4
943 76 52 92

Sean eta 7an. Argibideak
943 76 21 40 zenbakian.

► **Hitzaldia. Orlando Pineda** Nikaraguako ministrorde ohiak, Mitch hurakanaren ondorioz, Nikaraguako gaurko egoerari buruz jardungo du eguenean, hilak 15, 19:30etan Kultur Etxean.

► **"Guztion artean bakea guztion alde"** Arantzazura ibilaldia apirilaren 17an, Donostiako Elizbarutiak deituta. Bergararik irteera 8:40etan Beheko Estaziotik. Txartelak (1.100 PTA) Garitano estankotan, Agirrebeña dendan, Zatoian edo Urriategi estankotan.

► **Udalak jakinarazi nahi du ibilgailuen gaineko zerga** ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango dela zabalik.

► **Xipizaro ludotekak** begiraleak behar ditu udako udalekuetarako. Interesatuek izena eman dezakete apirilaren 19tik 30era Seminarioko ludotekan, 10:00etatik 12:00etara eta 16:30etatik 19:30etara. Aukeratzeko proba maiatzaren 8an izango da, goizeko 10etan.

KINTADAK

► **1940ko kintoen bazkaria** domekan, hilak 11, Antoni jate-txean. Aurretik, ordubatean, meza Santa Marinar eta ondoren Sagarpin bilduko dira. Izen-ematea Antxonin bertan, 943 76 20 40 zenbakian.

► **1937an jaiotako enafaria** apirilaren 17an Azpeitxi jate-txean, 21:00etan. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Kortazar tabernan.

► **1964an jaiotako enafaria** apirilaren 17an Tartufo jate-txean. Izen-ematea Plazako kioskoan edota 607 410 409 (Peli) telefono zenbakian.

► **1958tik 62ra (biak barne) bitartean jaiotako angiozartarren enafaria** apirilaren 17an Ortzi jate-txean. Izen-ematea 943 76 54 81, 943 78 22 80 edota 943 78 70 38 zenbakietan.

► **1951ko Gipuzkoako kintoen anaiarteko eguna** apirilaren 25ean Alegian. Goizeko 11:30etan meza San Juan Bautista parrokian eta ondoren bazkaria Txintxarri jate-txean. Izen-ematea Txintxarri jate-txean, 943 65 07 21 telefono zenbakian egin daiteke.

► **1960an jaiotako bergararren enafaria** maiatzaren 8an Txurigo jate-txean, 21:30etan. Ordu erdi lehenago taldeko argakia aterako da Osintxuko frontoian. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) maiatzaren 1a baino lehen Kutxako 0010815637 kontu korrontean.

► **1963an jaiotako bergararren enafaria** maiatzaren 8an Txurigoan, 21:30etan. Izen-ematea maiatzaren 3ra arte zabalik Ariznoa eta Kortazar tabernetan (1.000 pezetako aurrerapena).

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

La delgada linea roja

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 22:15.

Bichos

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00, 19:30.

Astelehena, ikuslearen

eguna: 19:30.

Ariane (Jatorrizko bertsoian)

Eguena, Forum Cinematographe:

21:30.

ARRASATE. Alai zinema

Amigos y vecinos

Eguakitza: 22:00.

Bichos

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:30, 22:00.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:00.

Estacion Central de Brasil

Eguena: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Muertos de risa

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Estacion Central de Brasil

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

El general

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Jack Frost

Domeka: 17:00.

Bajo bandera

Eguena, zine-kluba: 20:15.

LA DELGADA LINEA ROJA

Zuzendaria: Terrence Malick.

Aktoreak: Sean Penn, Nick Nolte, Adrien Brody, Ben Chaplin.

Terrence Malick zuzendariak (*Malas tierras*) 1970eko hamarkadatik errodutzen duen hirugarren filme honek 7 izendapen izan zituen aurten-go Oscarretan baina ez zuen saririk jaso. Soldadu japoniarrek eta estatubatuarrek Guadalcanalen izan zuten borroka latza kontatzen zaigu, gerratarari buruzko beste ikuspegi bat ematen delarik.

BICHOS

Zuzendaria: John Lasseter.

Inurri eta txitxarraren fabularen bertso berria dugu marrazki biziduen filme hau. Inurri kolonia batek matxin-saltoen eraso jasango du, baina zirko bateko kideen laguntza izango dute inurriek. Efektu berezi aipagarriak.

ARIANE

Zuzendaria: Billy Wilder.

Aktoreak: Gary Cooper, Audrey Hepburn, Maurice Chevalier.

Komediak errodatzekoan Billy Wilder-ek bere maisutasuna erakutsi zuen behin eta berriz. 1957ko hau ez da bere lanik ezagunena baina kritikak gero eta gehiago estimatzen du. Aberats batekin ezkontzeko ametsa duen neska gazte baten (Audrey Hepburn) gorabeherak azaltzen zaizkigu eta enredoa askatu arte egoera barregarriak izango dira. Jatorrizko bertsoian eta cinemascopo formatoan.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



DYA erakundeak bere sorreraren zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurtten. Antzuolako DYAko basea orain dela 16 urte jarri zen martxan eta gaur egun 10 bat lagun dira bertan, egunero 24 orduko zerbitzua eskaintzen dutelarik. Juan Mari Lakuntza bertako kide-rik heteranoetakoa dugu, hasiera-hasieratik baitabil Antzuolako DYAn.

G. Aurtten urjentzietara joateko ardua duen entitate altruista bakarria DYA da. Gurutze Gorriak lan hori egiteari laga ondoren, lana pilatu egin zaizue?

E. Jaurlaritzako Barne Sailarekin emerjentzietara irtetzeko akordio batera iritsi ginen eta badirudi Gurutze Gorrikoekin ez zirela ados jarri. Orain, urtarrietik, Ambulancias Gipuzkoa enpresak eta DYAk egiten dute lan hori eta guk 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu egunero. Egia da lehen baino lan gehiago daukagula; bataz beste hiru irteera egiten ditugu egunero eta boluntarioen kopurua, aldiz, berdintsua da.

G. Baliabideen aldetik?

E. Momentuan bi anbulantzia ditugu eta horietako bat erretiratzeko asmoa daukagu, oso zaharra da eta. Anbulantzia berri bat erostek 8 milioi pezeta balio du baina egoera berri honetan, dirulaguntzak ditugunez, gasto horri aurre egin ahal izango diogu. Gaur egun, Jaurlaritzaren dirulaguntzaz gain, Antzuolako Udalaren (lokala berea da eta argia eta telefonoa bakarrik ordaindu behar izaten dugu) eta Bergara eta Aretxabaletako udalen laguntza jasotzen dugu eta beste zenbait udalek ere laguntzen digute noizean behin.

JUAN MARI LAKUNTZA

DYAko kidea

“Orain lehen baino lan gehiago dugu; egunero hiru bat irteera egiten ditugu”



Juan Mari Lakuntzak 16 urte daramatza Antzuolako DYAn lanean.

Bestalde, oraindik ere zozketen (loteria, udan zozketatzen dugun kotxea...) eta kuestazioen bidez nahikoa diru jasotzen da eta horrela aurrera egin dugu DYA martxan jarri zenetik.

G. Boluntario aldetik jende faltan zarete?

E. Orain dela 16 urte Antzuolako DYA zabaldu zenetik antzera ibili izan gara

“Ikastaroekin jarraitu eta, ahal den neurrian, ekipamendua hobetuko dugu. Oraingo, zaila da zerbitzua profesionalizatzea”

boluntario aldetik. Gaur egun 10 bat lagun izango gara lanean eta zenbaitzuk hasieratik gaude. Baina gustora egiten dugun lana da, eta batzutan oso sakrifika-tua izan arren, beste kontentsazio batzuk ere baditu lan honek. Ez dut esango horregatik egiten dugunik baina gustora hartzen da noizean behin jendeak zure lana aitortzea. Gaur egun boluntarioak lortzea ez da batere erreza. Urtero antolatzen ditugun sorospen ikastaroetan nahiko jende hartzen du parte baina zaila da jende hori gero DYAn sartzea. Apirilaren 19tik maiatzaren 14ra bitartean sorospen ikastaroa izango da Bergarako Kultur Etxean, astebaruan 19:30etatik 21:00etara, eta bertan parte hartzeko interesa dutenek 943 46 46 22 telefonora deitu dezakete izena emateko.

G. Emerjentzia zerbitzuaz aparte, zeintzuk dira zuen eginkizun nagusiak?

E. Emerjentziako zerbitzuaz pendiente egon behar izatean, beti ere anbulantzia bat horretarako prest izan behar dugu eta, normala denez, ezin gara toki dantetara heldu. Hala ere, beste anbulantziarekin kirol txapelketetara, dantzaldietara eta horrelakoetara joaten jarraitzen dugu. Jendeak berdin-berdin jarraitzen du gure zerbitzua eskatzen.

G. Etorbizunerako zere?

E. Gure helburua eskaintzen dugun zerbitzua egunetik egunera hobetzea litzateke eta alde horretatik formazio ikastaroekin jarraitu eta ahal den neurrian gure ekipamendua (anbulantzia, tresneria..., etabar) hobetzeko asmoa dugu. Momentuz zaila da zerbitzua profesionalizatzea eta boluntarioen lana ahalik eta onena izaten ahalegindua behar dugu guztiok. ■

La bost milioiko aurrekontua onartu zuten San Joxepe jubilatuen elkarteak

Datorren urterako 2.000 bazkide lortu nahi dituzte

San Joxepe jubilatuen elkarteak urteko Batzar Orokorra egin zuten martxoaren 25ean jubilatuen egoitzan.

Iazko urtearen balorazioa sailez sail egin zen eta 1999rako aurreikusitako egitasmoen eta diru kontuen berri eman zen. Bestalde, zuzendaritza batzordea osatzen duten erdiak kargua laga egin zuten eta hauen ordezkioak aukeratu ziren. Batzarrean zuzendaritza batzordeko kide guztiek hartu zuten parte, Tomasa Zabaleta presidentea buru, eta Victoriano Gallastegi alkatea eta Fernando Etxeberria Gizartekintzako ordezkaria ere bertan izan ziren. Areto Nagusia jendez gainezka egon zen.

San Joxepe jubilatuen elkarteak 1.600 bazkide ditu



San Joxepe jubilatuen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak.

gaur egun eta zuzendaritzaren helburua 2000. urterako 2.000 bazkide lortzea da. Bazkideek 1.000 pezeta ordaintzen dute urtero. 1998. urtean zehar 153 bazkide berri lortu zituzten eta beste 96 lagunek baja hartu zuten: 17k heriotzengatik eta 79k

urteko kuota ez ordaintzeagatik.

Diru kontuei dagokienez, sarrerak 4.758.000 pezetakoak izan ziren iaz eta irteerak, berriz, 4.355.454 pezetakoak. Joan zen urtean 1.380 kuota kobratu ziren. 1999 urterako, bestal-

de, 4.900.000 pezetako aurrekontua onartu zuten batzarrak. Elkarteak 1.500.000 pezetako diru laguntza jasoko du Diputaziotik, beste hainbeste La Caixa Fundaziotik, 500.000 pezeta Bergarako Udalak emango ditu eta gainontzekoa bazkideen kuoten bitartez jasotzea espero dute. Azpimarratzekoa da hildako bazkide batek 2 milioi pezetako donazioa egin zuela iaz.

Zuzendaritza batzordeko karguen erdia berriztu egin zen batzarrean. Gerardo Mondragon, Patxi Laskurain, Honorio Sampietro, Maritxu Lizarralde, Jose Morras eta Felix Uriartek kargua laga egin dute eta horien ordezkio beste hauek sartu dira: Markos Labaien, Iñaki Eguren, Lorentzo Laskurain, Felix Garai, Glori Larrañaga eta Felicita Sasieta.



EAJ, EH eta EAko zinegotziak Udaletxeko balkoian Aberri Egunean.

Begarako indar abertzaleek bat egin zuten Aberri Egunean

Ehun bat lagunek hartu zuten parte Begarako Udalak deituta Aberri Egunean San Martin plazan izandako ekitaldi laburrean. Euskal Herriko Ordezkarien Biltzarrak herri guztietan egin zuten deia eta, Bergaran bezala, erakundeko kide diren beste herrietako udaletxeetan ere antolatu zen.

Begarako udaletxeko balkoian EAJ, EA eta EHko zinegotziak elkartu ziren Al-

fonso Alonso udaltzainburearekin batera. Jabier Gabilondo alkateordeak ikurriña altxatu zuen eta, jarraian, manifestua irakurri zuen Aitor Aranzabal zinegotziak. Ondoren, Xamatx taldeko bi dantzarik aureskua dantzatu zuten, ekitaldiari amaiera emanez. Ohiturari eutsiz eta Udalbatzak egindako deiari erantzunez, herriko hainbat balkoitan ikurriña jarri zuten Aberri Egunean.



EHren Talde Promotorean, HBko eta Zutik-eko kideak eta ezkertiarak diren herriko hainbat pertsona biltzen dira.

Talde Promotorea aurkeztu du EHk udal hauteskundeetarako Hautagaien zerrenda eta programa osatuko ditu

Ekaineko udal hauteskundeetara begira, Bergarako Euskal Herriarrok-en Talde Promotorea prentsaren aurrean aurkeztu zen martxo amaieran.

HBko eta Zutik-eko kideak eta ezkertiarak diren zenbait bergarrek osatzen dute Promotora eta bere egiteko nagusia EHren hautagaien zerrenda osatu eta hauteskundeetarako herri programa osatzea izango da. Hauteskundeak igaro eta gero, Promotora bertan behera geratuko da.

EHren zerrendaburua Jesus Mari Garitano izango da, baina gainontzeko hautagaien zerrenda osatzeke dago oraindik. Bestalde,

Herri programa 7 ardatz nagusitan banatu da: irakaskuntza, kultura, sozioekonomia, lurralde antolaketa, kirolak, euskara eta udalgintza. Arlo bakoitza aztertuko duen lantaldeak sortu dira.

Udalaren funtzionamenduari buruz, Gobernu Batzordean alderdi guztien ordezkariak bermatzea ezinbestekoa da EHren ustez: "Alkateaz gain, beste alderdi guztietako ordezkariak egon beharko da, beren presentzia hauteskundeetan lortutako zinegotziak kontuan izanda proportzionala izango delarik". Honen haritik, alkatearen figura presidentzialista desagertzearen aldekoak direla esan zuen Jesus Mari Garitanok EHko zerrendaburua.

Bestalde, herritarren partehartzea bultzatzeko bitartekoak jarri nahi ditu EHk. Honen inguruan, erreferendumak eta herri kontsultak konbokatzearen aldekoak dira gaiaren garrantziak hala agintzen duenean eta "Udalbatzak hala erabakiz gero, eta herriko biztanleen kopuru nabarmen batek hala eskatuz gero".

Udal hauteskundeetara Bergaran EAJk eta EAK zerrenda bateratuak aurkeztea kritikatu eta salatu zuten EHren ordezkariak. Erabakia zilegi izan arren, onartezina dela esan zuten: "EAJ eta EA argi eta garbi erakusten ari dira duten helburu nagusia Euskal Herriarrok alkatetzatik kanpo lagatzea dela" esan zuten.

Eibar-Gasteiz autopistaren obrak adjudikatu ditu Diputazioak

Eibar-Gasteiz autopistaren lehen fasearen obrak adjudikatu berri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuak kontseiluak. Moyua, Murias, Altuna y Uria eta Galdiano eraikuntza enpresek egingo dituzte lanok. Obrak 9.833 milioi pezetan adjudikatu dira, lizitazio prezioan aurreikusitakoa baino %24 gutxiago. Lanak lehen bait lehen hasiko dira eta 30 hilabeteko epea izango dute Bergara eta Eibar arteko zatia egiteko. Lanok egingo dituzten eraikuntza enpresek agindu dute lurren garrarioa gauzez egingo dutela trafikoa ez oztapuzteko.

Agorrosingo igerilekuetako taberna berriz ere zabalik

Martitzenetik zabalik dago berriz ere Agorrosingo igerilekuetako taberna. Maite Guenetxea elgoibartarrak hartu du tabernaeta aurrerantzean pintxoak, kazolatuak eta ogitartekoak eskainiko ditu, edariez gain. 90.000 pezetako errenta ordaindu beharko dio hilean Udalariei eta, hasiera batean, urtebeterako kontratua egin zaio, beste lau urtetarako berrizteko aukerarekin. Piztzeneko taberna joan zen urte amaieratik itxita dago.

PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Presoak Euskal Herrira lemapean manifestazio jendetsua izan zen Erramu Zapatu egunean. Senideek eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek eskatuta, EAJ, EA, HB, IU-EB, ELA, LAB, ESK eta EHNEK bat egin zuten eta urtarrilaren 9an presoan alde Bilbon egin zen manifestazioaren izpirituari eutsiz, herri mailako manifestazioa egin zen. Bestalde, Erramu Zapatu bezperan, herritar ugari bildu ziren San Martin plazan Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu zutenen deiar erantzunez.



Indar politiko eta sindikatu gehienek bat egin zuten manifestazioarekin.

Iñaki Arenaza kalean eta Patxi Olabarriari ongi-etorria zapatuan

Iñaki Arenaza preso bergararrari ongi-etorria egiteko Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak San Martin plazan antolatutako ekitaldian jende ugari elkartu zen martxoaren 26an. Iñaki Arenazak hainbat opari jaso zituen eta Xamatx dantza taldeak ikurrin dantza eskaini zion. Bestalde, Ainhua Agirre-azaldegik bertso batzuk eskaini zizkion eta Andoni Arroio Amnistiaren Aldeko Batzordeko ki-deak hitz batzuk luzatu zizkien bildutakoei. Iñakik berak ere hitz batzuk esan zituen elkartutakoei eskerrak emateko.




Iñaki Arenazari ongi-etorria.

Zabalotegiko lanak amaituta eta Boluko biribila prest

Aste Santuko oporren aurreko egunetan bota zuten asfaltua Zabalotegi atzealdean eta Udal Euskaltegiko aparkalekuan. Datozen egunotan, bestalde, barandila jarriko dute etxeetara ematen duen aldean. Iñaki San Jose Udaleko obra buruak Berrigarari adierazi dionez 31 aparkaleku berri egokituko dira. Bestalde, Bolu-

ko biribila bukatu dute dagoeneko eta datorren astean semaforoak jarriko dituzte. Lan hauek amaitzen dituztenean Bolu, Iraburu, Koldo Eleizalde eta Ibarra kalea asfaltatuko dute. Kanposantu ondoko aparkalekua, bestalde, jaiak hasi baino astebete lehenago prest izango da. Aurren barrakak bertan jarriko dira.



Zabalotegi atzealdean asfaltua bota zuten Aste Santuko oporren atarian.

Bestalde, Patxi Olabarria antzuolar presoari ongi-etorria egingo zaio zapatu honetan Antzuolako plazan. Goizeko 7etan abiatuko da autobusa Martuteneko espetxera eta 11:00etan ongi-etorria egingo zaio Antzuolako plazan. Datorren zapatuan, hilak 17, bere omenezko herri bazkaria egingo da. Bazkarirako txartelak Surpe eta Larrea tabernetan eta Gaztetxean eskura daitzke. Ekitaldiok Antzuolako Amnistiaren Aldeko Komiteak eta Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak antolatuta ditu.

Berrigara

362 zenbakia.
1999ko apirilaren 9a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Hilario Azkargorta.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ZORIONAK ARITZETA ABESBATZARI

Idatzi hau aprobeztatu nahi dut Aritzeta abesbatzari bere 20. urteurrenean nire zorion oparoenak eskaintzeko baina, aldi berean, Berrigararen 361. alean irakurri nuen gauzatxo bat argitzeko.

Joxe Arrietak, Aritzeta abesbatzako presidentek, honela zioen: "Nire ustez, Musika Eskola herriko abesbatza guztiendako mintegi izan beharko litzateke eta une honetan Orfeoi Gaztera edo Orfeoira bakarrik doaz".



Joxe Arrietari esango niokeena hau da: momentu honetan Orfeoi Gaztean abesten duten gazteetatik, asko jota, pare bat gazte bakarrik dabiltzala Musika Eskolan ikasten, eta Orfeoi Gaztetik pasatu eta gaur egun Orfeoian gabiltzan gazteak Musika Eskolan ibili garela, baina inork ez digula esan Orfeoira etortzeko.

Orfeoian abesten ari bagara, ateak zabaldu zizkigun bakarra izan zelako da, ez baikenuen beste irtenbiderik abesten jarraitzeko.

Bukatzeko, zera esango nizueke Aritzetakooi: ondo iruditzen zaidala zuen urteurrena ospatzea, baina mesedez suposizio hauek alde batera utz itzazue.

Aitziber Etxeberria
NAN: 15.399.837

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Chilen egindakoagatik Pinochet epaitua izan bihako litzake zure ustez?



Benito Garcia

Nire ustez bai. Erahilketa asko bideratu eta onartu ditu. Penagarria bada ere, ez dakit zer gertatuko den interes handiak baitaude ingeles eskuindarren artean.



Jose Maria Zurutuza

Espainiara ekarri beharko zuten bertan epaitua izan dadin. Epaitua izatea merezi du egin dituen delitu guztiengatik baina ez dut uste epaiketa iritsiko denik.



Rafael Castro

Ez dut uste gure arazoa denik. Garzon gauzak mugitzen ari da eta espetxera joango ez den arren Espainiaratu egingo dutela uste dut. Espainian epaituko dute.



Maria Jesus Beitia

Ez dot gaixa asko jarraitu, baiña entzuten diren gauze-gaitik ez dot uste hona ekarriko dabenik. Esaten dan dana egixa bada, epaitua izatia merezi dau.



Teresa Cabo

Nire ustez epaitua izan beharko litzateke. Ezin da horrelakorik egin. Ez dut uste Espainiaratuko dutenik. Edadetua da eta babes handia du oraindik.



Julia Vazquez

Epaitua izan beharko litzateke. Ez dut uste estatura ekarriko dutenik interes handiak baitaude. Diru asko maneatzen da. Epaitua izatea urrun ikusten dut.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

TXAKURREN ZIKINAK ZURRADERO KALEAN

Zurradero kaleko

hainbat bizilagunek txakurren zikinei buruzko kexak helerazi dizkigute. Kale horretan albaitari klinika bat dago eta, antza denez, hainbat herri-tarrek animaliak bertara erooten dituztenean, kanpoan itxoitzen ei dute txanda tokatu arte.

Kanpoan daudenean, animaliek kaka eta txiza egiten ei dute kalean. Aguantatu ezindako usaina geratzen ei da eta kakak bazter guztietan aurki daitezke. Zurraderoko bizilagunek herritarrei eskatu nahi diete animaliekin albaitari klinikara doazenean kontu handiagorekin ibili daitezela eta animalien zikinak batu ditzatela, ea horrela kalea txukun eta osasuntsuago dagoen.

■ ikuspuntua: felipe iñarra

Akordatzzen haiz?



Algortan, 1999ko aprillan 7xan:

Ze joiak, aixkiria!

Akordatzzen haiz Soledadetik gora kan-greijotara zela joaten giñan? eta gaztaiñatara? eta intxaurrak, keixak, melokotoiak, mardarixak... harrapatzera?

Goguan daukag Carlos Garaikoetxeak, Lehendakari zala, autografua emon zoskuarekua? (ja, ja, ja!).

Momentu ederrak pasau jittuau alkarrekin, baita hasarriak be. Jenixo bizikua hitzan-eta, neu be bai...

Oiñ, oster, hiru urte hire berri barik emon ostian, telediarixuak emon joskuen notizia. Danba! Hire atia behera bota eta kartzelan sartu habe. Honeek ez juek bakerik nahi, baiña guk bai eta egingo juau.

Momentu politta eta esperantzagarria bizi izaten jharduau Euskal Herrixan eta pelikula honetan zintzuak eta gaiztuak zeintzuk dien ikusi leikek (nik argi jaukat) eta ez dok

gutxi; honen kontra komunikabidiak eitten daben indarra ikusitta.

Mundu osua hankaz gora jak, gerran, sasoi batian osatu zien mugarri politikuak (estatu-naziñuak...) errebentau ein juek eta herrixak berak jabizak euren eskubidiak eskatzen. Harritzekua dana gero eta uniformeago dan mundu honetan.

Gerra honeen guztien arrazoiak diferentia-tiak dittuk azalian, itxuran, baiña barren-barrenian bakarria dok, herrixa osatzeko nahixa "pertsone libreen herri askea" osatzeko nahixa.

Beste barik, besarkada bat eta laster arte, Migelon! **13**

■ asteko menua: **tartufo jatetxea**

Txahal erregosia



BEGO eta ANGEL ARIZABALETA
Tartufo Jatetxeoak

OSAGIAK (4 lagunendako)

- Kilo bat gisatzeko haragi
- 3 kipula handi
- 2 azenario
- 2 piper berde
- 2 berakatz ale
- 2 patata takoetan moztuta
- Brandy basokada bat
- 2 basokada ardo beltz
- Txokolate zatitxo bat
- 20 cl oliba olio (0,4)
- 100 gramo idar

PRESTAKETA

- Lapiko batean olio berotzen ipini eta barazkiak potxatzen jarri.
- Okela zatiak irinetan busti eta gezitu.
- Zartagin batean okela zatiak su bizian gorritu.
- Lapiko batean okela zatiak, barazkiak, patatak eta beste osagai guztiak ipini.
- Su motelean ordu eta erdiz haragia bigundu arte egosten eduki eta noizbehinka, behar izanez gero, ura gehitu.
- Mahaira ateratzeko, ontzi sakon batean ipini idarrak eta patatak goarnizio bezala erabili.

■ adituen esanetan

Ahoko higienearen garrantzia

IDOIA IRIARTE, *dentista*

Ahoko higie txarrak, kariesak agertzea, gengivitisa eta gaisotasun periodontala ekar ditzake atzetik, besteak beste. Hainbat arrazoi daude horiek agertzeko, baina ohizkoena plaka bakterianoa delakoa metatzea da. Hagina, plaka eta azukrearen proportzioaren arabera, kariesa sortzen da eta hagina desmineralizatu ondoren, zulatu egiten da. Gengivitisa, berriz, enziatiko infekzioa litzateke; hezurra galdu ez arren, hortzoi edo enziak odoletan dira; eta esan behar da gazteen artean arazo hau nahiko arrunta dela. Azkenik, gaisotasun periodontala legoke. Munduan gehien zabalduak gaisotasuna da eta

berdin eragiten die emakumezkoiei zein gizonezkoiei. Pubertaroan kasu gehiago ematen dira eta 30 urtetik aurrerakoan artean ohizkoa da. Ahoko higiea eskasagoa den heinean, periodontitisa gogorragoa izango da. Esan behar da hagin galtzeen %50 gaisotasun periodontalaren ondorioa dela.

Prebentzioari dagokionez, haginak hortz-eskuilarekin ondo garbitu behar dira jatordu bakoitzaren ostean eta, horrez gain, hortzetako haria modu egokian erabiltzea gomendatzen da. Horri kolutorioen erabilpena gehitzen badiogu haginak osasuntsu egoteko aukerak gehitu egingo ditugu. **B**

■ bergarako gordailutik

ELGETARREK EMANDAKO BARKAZIOA

Imanol Sorondo

*D*enbora batean, XIV-XV. mendeetan zehatzago ipintzeko, istilu ugari izan ziren gure artean; modu batera edo bestera, gauza batengatik edo beste-arengatik, denbora iskanbilatsuak izan ziren. Hor kokatu daiteke gure historiaren gaurko idatzitxo hau: Bergararrak eta elgetarrak eztabaidan eta haserretan ibili ziren 1346. urte inguruan; batak besteari uztak eta etxeak erretzen eta lapurretak egiten, beste kalte eta gaitz batzuen artean. Azkenik, armak eskuetan hartu eta min handiagoak sortu ziren. Badirudi hildakoak bi herrietakoak izan zirela, baina Bergarakoek elgetarren buru nagusiak hil zituzten: Berraondotar Gartzia, Irazabal-dar Iñigo eta Iribetar Otxoa Martinez.

Begararrak eta elgetarrak haserretan ibili ziren 1346. urte inguruan; elkarri uztak eta etxeak erretzen eta lapurretak egiten, beste kalte eta gaitz batzuen artean

Bi urte beranduago Elgetako Kontseiluak barkazioa eman zion Bergarakoari eta, bereziki, horien izenean zebiltzan ordezkoei: tartean zeuden Munabetar Pedro Martinez alkatea eta Anguatar Gartzia Perez eta Campotar Martin, juradoak. Gainera, bi herrietako ordezkariak pakezko idatzi bat izenpetu zuten Ortizar Fortun, Arrasateko iskrubauaren aurrean. Han zeuden beste leku-ko gehiago ere, Lopez Diaz de Rojas, Gipuzkoakao alkate nagusia tartean. Esanguratsua da jaun hau leku-koen artean egotea, bi herrietako iskanbilena, barkazioaren eta pakearen garrantzia azpimarratzen baitu. **B**



Gazte Zerbitzuko arduraduna

Mainer Sedano 22 urteko urretxuarra izango da Kultur Etxeko gazte informazio guneko zerbitzuan lanean maiatzetik aurrera. Udalak deitutako lehiaketara hiru eskari aurkeztu ziren eta zerbitzua Mainerri adjudikatu zaio. Pedagogian lizentziatua da Mainer eta, esan bezala, maiatzaren lehendabiziko astean jarriko da martxan gazte informazio gunea **Kultur Etxean**, eguen eta eguakitzetan 16:00etatik 20:00etara eta zapatuetan 10:00etatik 14:00etara. Aipatutako zerbitzua **15-29 urte bitarteko gazteei zuzenduta** dago eta bertan bekak, bidaia, ikasketak edota lanari buruzko informazioa eskainiko da.

Erramu Zapatuko feria jendetsua

Aurten ere, **Aste Santu aurreko Erramu Zapatuko feria** guztiz arrakastatsua gertatu zen. Zenbait unetan euria izan arren, eguraldiak ere azkenean lagundu zuen eta eguerdi aldera eguzkia izan zen nagusi. Aurreko urteetan bezala, **abelburuak, baserriko produktuak edota txorimaloak** izan genituen feriako protagonistak. Ikaragarriko jendetza izan zen **Fraiskozurin, Seminarioan, Simon Arrietan eta Plazan** jarritako postuen inguruan eta egun guztian zehar primerako giroa izan zen. **Jarduneko Gazte Taldeak**

antolatutako lehiaketan **39 txorimalo** izan ziren ikusgai; gartzetxoan taldean **Kepa Odriozola** izan zen irabazlea, 15 urtetik 60 urtera bitartekoetan **Io-kin Hernandezen** taldeak irabazi zuen eta hortik gorakoetan **San Xosepe elkarteak** aurkeztutakoa izan zen txorimalo saritua. Partaide guztiek maila bikaina erakutsi zuten. Azkenik, esaldi sariduna **Agurtzane Elortzarena** izan zen. Honela zioen: "Zuhaitzen jatorria da mendia. Euskararena, berriz, Euskal Herria. Zuhaitzek bizitzeko behar dute argia. Euskarak, berriz, berba egiterakoan dugun grazia".



Zerrajerako "Unibertsitatekoak"

Urtero moduan, **Laberagaietako eskolan** ikasitako emakume talde bat elkarrekin bazkaltzeko elkartu zen. Guztira, **20 lagun** izan ziren mahai baten bueltan herriko jatetxe batean **Erramu Zapatuan** eta giro bikaina izan zen nagusi. Beraiek esaten duten moduan, Zerrajerako "Unibertsitatean" lizentziatutakoak dira eta hori urtero ospatzekoa da. Eutsi umoreari!!



Herriko taxistek ez dute hiri handietako taxisten trafiko ataskoak, presak, arriskua edo stressa ezagutzen. Erritmo lasaiagoan egiten dute lan. Bergaran 14 taxista dira gaur egun eta badira horien artean egunero Irizar pasealekuko paradan egoten direnak. Jende gehienak kotxea izatean, lanak nabarmen behera egin duela diote eta ofizioari eusteko laguntza gehiago botatzen dute faltan.



Fernando Ezenarro "Txurruka" dugu taxisten *dekanoa* Bergaran. Bere aitaren taxista lizentzia heredatu zuen eta oraindik ere taxista lanak egiten ditu noizean behin garajeko lanaren osagarri. Gidatze karneta eskuratu baino lehen kilometro dezente egin zituen Fernando aitaren kotxearekin. Ondoren, 18 urterekin, gidatzeko karneta eskuratu eta taxiarekin lanean hasi zen, hara eta hona bidaiak eginez. Oraindik ere gogoan du bere lehendabiziko kotxea; "Pontevedrako matrikula zuen Gran Paige kotxe amerikar bat zen, General Motors enpresakoa, eta harekin urte dezente ibili nintzen". Ordutik zazpi bat kotxe erabili ditu taxi bezala, Seat markakoak gehienak, eta gaur egun Mercedes 300 D bat dauka. Europa guztian (Alemania, Frantzia, Britainia Handia...) zehar bidaiatu du Fernando eta zenbaezinak dira errepedean emandako orduak. Berak argitzen digun moduan, "ez dut sekula taxi paradan lanik egin eta normalean enpresatarako lanak egin ditut taxiarekin. Oraindik ere kliente fijo batzuk mantentzen ditut eta euredako bakarrik lan egiten dut, nire eguneroko lanaren osagarri, baina ez nago taxiaren menpe".

HAMALAU TAXISTA

Gaur egun 14 taxista dira Bergaran. Udalak banatzen ditu taxi lizentziak eta herri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera zehazten da normalean taxi kopurua. Hala ere, biztanle gehiago izan arren, Arrasatek Bergarak baino taxi gutxiago ditu. Bederatzi taxi daude Arrasaten gaur egun eta gure herrian ere gutxiago egon beharko liritekeela uste du Rafael Sainzek. Nafarroako

Ubago herrikoa jaiotzez, 1956. urtean Bergarara etorri zen lanera Rafael eta tornilleria batean eta garraio enpresa batean aritu ondoren, 1972. urtean taxi lizentzia erosi zion Isidro Muguruza zenari. Rafael Sainzen arabera, "lehen orain baino askoz ere lan gehiago izaten genuen. Gaur egun, berriz, jende gehienak kotxea dauka, autobus zerbitzua ere hor dago... Orain dela urte batzuk astebukaeretan izaten genuen lan gehien eta azken urteotan oso lan gutxi izan da, gaurko gazteak euren kotxearekin irtetzen direlako. Bestalde, lehen Gizarte Segurantzarako ere lan egiten genuen, trasladoak etabar eginez baina lan hori anbulantzien esku dago gaur. Igartzen da bai lanaren beherakada".

TAXI PARADAN

Egunero 14 bat ordu ematen ditu Rafael Irizarreko taxi paradan eta nahiko lan aspergarria dela diosku; "lankideekin edo hona hurbiltzen diren lagunekin berriketan, egunkaria irakurtzen..., horrela igarotzen ditugu ordu hilak baina nahiko neketsua egiten da". Lan gehien uda aldean izaten dutela dio Rafael; "eguraldi onarekin jendea gehiago animatzen da irtetzera eta normalean kotxerik ez duten pertsona edadetuak izaten dira taxiaren bila etortzen direnak". Urtean, batz bestea, 50.000 kilometro inguru egiten ditu taxiarekin eta 15 eguneko oporrak hartzen dituenean kotxea ez ikutzen aha-

Rafael Sainz (ezkerrean) eta Carlos Maestre, Bergarako taxi geltokiko beteranoenetakoak ditugu. Biek ere aspaldian lanak behera egin duela diote.

legintzen da Rafael. Gaur egun Opel Omega kotxea dauka eta taxiarekin hasi zenean Seat-1500 bat zeukan. Bertzelona aldera sarri joaten da eta Portugal eta Andaluzia aldera ere taxiarekin joan behar izan du behin baino gehiagotan. Hiri handietan askoz ere lan gehiago egiten dute taxistek; "tren estazioek, aireportuek eta horrelako zerbitzuek lan asko sortzen dute; baina hiri handietan taxi lizentzia bat eskuratzea oso garestia da. Zenbait kasutan 30 milioi pezeta inguru balio dezake taxi lizentzia batek". Herrietakoak, berriz, askoz merkeagoak dira, 4-6 milioi bitartean eta taxistak kexu dira ordaindu behar izaten dituzten inpuesto mordoogatik. Telefono eramangarriak taxisten lan tresna bilakatu dira aspaldian. Rafaelen hitzetan, "gure lanerako ezinbestekoa da telefono eramangarria. Errepedean ere ezuste asko (ataskoak, istripuak...) gertatu daitezke eta horrelakoetan primeran datorkigu telefonoa eskura izatea. Badira telefono eramangarriak inoiz josten ez duen egunak baina beste batzuetan hiruzpalau dei jasotzen ditugu mobilean, bakoitzak gutxi gora-behera bere bezero fijoak dituelako. Paradako lanaz gain, hainbat enpresatarako lan egiten dut".

KOTXEA, BIGARREN ETXEA

Mayc enpresan lan egin ondoren, Carlos Maestreri taxi lizentzia eskuratzeko aukera suertatu zitzaion eta ez zuen bi





Jende gehienak kotxea daukanez eta garraio publikoen ugaltzarekin, taxistek enpresetarako lan egiten dute batik bat

Argazkian, Irizar pasealekuko taxi geltokia. Bertan bezeroen zain izaten dira herriko taxistak.

aldiz pentsatu. 24 urte pasatu dira ordutik eta Maestrek taxi paradan lanean jarraitzen du. Hala ere, etorkizunari begira ez da oso baikorra; "hirietan taxiek lan piloa daukate baina herrietan desagertzeaz daude, gero eta lan gutxiago dagoelako. Bergaran beharrezkoak direnak baino taxi gehiago dago. Konpetentzia handia eta lan gutxi; nik uste dut 6 taxi egotearekin nahikoa izango litzatekeela. Soldata duin bat irabazteko hilean 500.000 pezeta fakturatu behar dituzu, inpuestoetan diru asko joaten zaigulako eta kopuru horretara iristea oso nekeza da, ezinezkoa. Autonomoak izatean, gaisorik gaudenean ere lan egitera behartuta gaude, dirurik galdu nahi ez badugu behintzat".

Hala ere, kotxea sarritan berrizteko aukera izaten dute taxistek, zergarik ez ordaintzean, fabrikako prezioan erosi ditzaketelako. Carlos Maestrek 10 bat kotxe izan ditu taxiarekin lanean hasi zenetik eta gaur egun Renault Safrane bat dauka. Bataz beste, 50.000 kilometro egiten ditu urtean. Kotxea bere bigarren etxea da; "egunean ordu piloa pasatzen ditugu paradan eta nahiko gogorra eta aspergarria egiten da. Baina, tira, beti egoten gara lankide bat baino gehiago paradan eta hala nola igarotzen ditugu ordu hilak". Bidaiarik luzeena Suediara egin du Carlosek bere taxiarekin eta Frantzia, Alemanian edo Portugalen ere izan da. Orain dela 24 urte lanean hasi zenean 20 pezeta

kobratzen zuen kilometro bakoitza eta gaur egun, aldiz, 61 pezetan dago; "egia da taxia nahiko garestia dela baina guk ere zerga asko ordaindu behar izaten ditugu". Ordaintzeke taxian bidaiatu duenik ere ezagutzen du; "behin Ermuako pare bat bikote etorri zitzaizkidan, musika talde ingelesen bat ikustera eraman nituen Donostiara. Joan baino lehen ordaindu nahi zidaten eta nik ezetz, Donostiara heldutakoan kobratuko niela. Azkenean, Anoeta inguruan zegoen jendetzarekin, atzeko hiruak irten eta nire ondoan zihoanak zera esan zidan: Zer taxista, zer moduz egiten duzu korrika? Eta hanka egin zidaten. Horrelakoak ere kontuan hartu behar dira gure ofizioan". **B**

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

 **DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

KONDE **PANADEROKUA**

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
ORDUTEGIA:
8.00-13.00 eta 15.00-20.00
☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57
- **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:**
- ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotritizatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:30: Patxaran Team-Ion Autoak
10:30: Moskis-Igandekoak
11:30: Agirrebeña-Komando Piperrak
12:30: Shaktale-Artusamak
16:00: Azpeitxi Jatetxea-SLP

Moskis
K. Piperrak
Artusamak
Antolaketa
Antelaketa

ZAPATUAN KANPOAN

17:00: Jauja OH Zerezos-Xurrupak
18:00: Ortzí-Mongatxurak
19:00: Pagomendi-Urrutxurtu

Antolaketa
Urrutxurtu
Antolaketa

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Amilotx-Guadalest
10:30: Txipiron-HHH
11:30: Errotagain-Ari Ari
12:30: Buya-Etengabe
16:00: Jauja OH Zerezos-Arbe Kirolak
17:00: Mo(ko)lotov-Sirimiri Eri
18:00: A Ze Flaxa Etxagi-Amozkibar
19:00: Bildurbarek-FAC
20:00: Bar Canalejas-Xurrupak

Txipiron
Amilotx
Antolaketa
Ari Ari
Mo(ko)lotov
Amozkibar
Antolaketa
Antolaketa
Antolaketa

DOMEKAN KANPOAN

16:00: Patatus-Shaktale
17:00: Usoa-Pinturas Bergara
18:00: Ufala-La Juve

P. Bergara
La Juve
Usoa

argi!

Play Offa eta Kopa

Play Offetan eta Kopa txapelketan, arauzko minutuak jokatu ostean, partidua berdinketaz amaituz gero, zuzenean penalti jaurtiketak izango dira, proroga jokatu barik. Promozioan, berriz, partidua berdinduta amaituz gero, 5 minutuko luzapena jokatuko da lehenbizi eta hau ere berdinketaz amaituz gero, penalti jaurtiketak izango dira. Penaltietetan, talde bakoitzak lau penalti jaurtiko ditu.

jokoz kanpo




EVA ALZAS
Gu Geu

G. Zer moduz hasi duzue txapelketa?
E. Ondo. Partidu bakarra jokatu dugu oporrak izan direla eta, baina gol zaparrada handia egitea lortu genuen. Gai-nontzekoek bi partidu jokatu dituzte.
G. Aurreko urteetan talde gehiago izan dira txapelketan.
E. Bai. Iazko antolatzaileak ez daude eta deialdia egin zen unean lau taldek besterik ez genuen izena eman. Dena dela jokatzeke gogo handia dago gure artean.

G. Zein postutan jokatzen duzue?
E. Aurrelaria naiz.
G. Zenbat urte areto futbolean?
E. Areto futbolean hiru bat urte. Bestalde, Ipintzako txapelketan ere ibilia naiz eta joan zen urtera arte Zumarragako futbol taldean jokatzen nuen. Aurten, Bergarako futbol taldean nago. Futbolearen aritzea atsegin dut.
G. Futbola edo areto futbola nahiago?
E. Areto futbola. Baloia ikutzeko aukera gehiago daude areto futbitoan.
G. Zure ustez zein taldek irabaziko du txapelketa?
E. Potzu Ta Zapaburuak eta gure artean egongo da kontua. Esan dudana bezala ez gaude talde asko eta bat, gainera, oso gaizte da.

gora eta behera



Bar Canalejas

Bar Canalejasek lehen postuan dagoen Azpeitxi Jatetxea taldearen kontrako partidua 4-2 irabazi zuen azken jardunaldian. Horrela, Bar Canalejas taldeak postu bat igo du sailkapenean. Azpeitxi jatetxeari, berriz, emaitza honek ez dio eragin. Lehen mailako lehen postuan gelditu da.



Moskis

Moskisek behera egin du sailkapenean. Bigarren postuan izatetik bosgarren postura jaitsi da Irubide Jatetxearen kontrako partidua 1-4 galdu ondoren. Irubide Jatetxea taldekoak, berriz, hirugarren gelditu dira.

emaitzak

Shaktale-Mongatxurak	0-4
Buya-Patatus	4-3
Azpeitxi Jatetxea-Ortzi	3-2
Komando Piperrak-Matxakategi	10-0
SLP-Amilotx	4-0
Ari Ari-Agirrebeña Jatetxea	6-3
Bar Canalejas-Azpeitxi jatetxea	4-2
Jauja OH Zerezos-Errotagain	3-5
A Ze Flaxa Etxagi-Ortzi	4-2
Moskis-Irubide Jatetxea	1-4
Patxaran Team-Matxakategi	13-2
Arbe Kirolak-Tom Cat	0-2
Mo(ko)lotov-Agiñaspi	4-4

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	40	18
2. A Ze Flaxa Etxagi	36	18
3. Errotagain	29	18
4. Pagomendi	27	18
5. Bar Canalejas	26	18
6. Ortzí	23	17
7. Mongatxurak	21	17
8. Bildurbarek Opel/Lam	18	18
9. Jauja OH Zerezos	13	18
10. Shaktale	13	18

2. maila

	P	J
1. FAC	25	11
2. Bayer	22	11
3. Artusamak	21	11
4. Xurrupak	20	11
5. Tom Cat Argandolas	20	11
6. Ezinleike	16	11
7. Arbe Kirolak	15	11
8. Sirimiriri Eri	14	11
9. Txipiron	8	11
10. Usoa	7	11
11. Guadalest	7	11
12. Uve Bikoitza	4	11

3. maila

	P	J
1. Urrutxurtu	24	10
2. Ari Ari	19	10
3. Irubide Jatetxea	19	10
4. Jakina Patxaran Team	19	10
5. Moskis	19	10
6. Ufala	17	10
7. Komando Piperrak	11	10
8. Agirrebeña Jatetxea	8	10
9. Etengabe	7	10
10. Matxakategi	5	10
11. HHH	3	10

4. maila

	P	J
1. Amozkibar	23	10
2. SLP	18	10
3. Agiñaspi	17	10
4. Ion Autoak	17	10
5. Mo(ko)lotov	16	10
6. Buya	15	10
7. Patatus	12	10
8. La Juve	11	10
9. Pinturas Bergara	8	10
10. Amilotx	6	10
11. Igandekoak	-1	10

kronikak


Futbola
Neskak
kopan ligan
baino hobeto

BKEko neskek duela lau aste liga amaitu eta dagoneko Gipuzkoako Kopa jokatzeko dihardute. Ligan ez zuten zorte handirik izan. Bittorren neskek sailkapenean azken postuetan ibili dira ia liga osoan zehar.

Kopan, berriz, zortea alde dutela dirudi. Hiru partidu jokatu dituzte. Bi irabazi eta azkena berdindu egin zuten 0-0. Azken hau, Debaren kontra izan zen. Taldean hiru jokalariek lesioak jota zeuden eta zelaiaren egoera penagarria zen eurriak eragindako lokatz handia zela eta. Jokalariek ez zuten jokua erakusterik izan. Bi asteburu barru, Bittorren neskek egoera bikainean dagoen Mutriku taldearen kontra neurtuko dira.


Eskubaloia
Bi taldek ja-
rraituko dute
denboraldia

Eskubaloia sailean bi talde besterik ez dira izango maiatza bitartean arituko direnak. Josetxo Muniategiren jubenilak eta Edu Inarraren kadeteak ez dute kopa txapelketa jokatzetik izango, taldeko jokalariek eta entrenatzaileek horrela erabaki baitute. Beraz, nesken taldeak eta Iraundi Bergarak bakarrik jokatu dute kopa.

Senior mailari dagokionez, Federazio Kopa jokatzeko hasi ziren liga amaitu eta gero. Azken honetan, 7. postua eskuratu zuten. Orain, maiatzaren 15era arte, sei aste iraungo dituen Gipuzkoako Kopari eman gote diote hasiera.

Lehendabiziko partidua Ormaiztegiaren kontra izango da.


Saskibaloia
Joku ona
baina zorte
txarra

Bergara saskibaloia zaileko jubenil mailako mutilek ez zuten zorte handirik izan Zarautzen kontra jokatuako partiduan. Bi taldeak erdi aldean agertzen dira sailkapenean baina azken honetan Zarautzarrek 68-45 irabaztea lortu zuten.

Iñigo Martinek zuzentzen duen taldea partiduko lehen zatitik hasi zen puntuak galtzen. Atsedendira 18 puntuko aldeaz galtzen joan ziren; eta bigarren zatia ez zen gutxiagorako izan. Zarautzarrak aldea handitzen joan ziren eta. Bergararrek joku ona erakutsi zuten baina saskiratzeako orduan ez zuten punteria zorrotz. Bi aste barru, Martinen mutilak liderraren kontra neurtuko dira Bergaran.

MAITE USABIAGA/ Saskibaloia jokalaria
"Taldea lana beharrezkoa da"

Duela bost urte hasi zen saskibaloian. 18 urte ditu eta Ganbara BKE taldeko saskiratzaile nagusia da. Ganbara BKE taldea denboraldi bikaina egiten ari da aurten. Saillapenaren aurrealdeko postuetan aurkitzen da. Maitek adierazi digunez, talde-lana mantentzen bada horrela jarraituko dute.

G. Saskibaloiak ez dauka jarraitzaile askorik Bergarako nesken artean...

E. Zoritxarrez ez. Gainera, neskek gero eta gehiago jokatzeko dute futbolearen eta horrek ez digu batera laguntzen. Niri saskibaloia betidanik gustatu izan zait. Duela bost urte lagun kua-

drila bat hasi ginen saskibaloian eta harrezkero batzuk joan eta beste batzuk etorri egin dira. Une honetan taldea osatzen dugun jokalarien artean harreman oso ona dago. Oso gustura dihardugu jokatzeko eta orain arteko emaitzak honi esker direla esango nuke.

G. Gustoko jokalariek bat?

E. Real Madrileko Alberto Herreros.

G. Zenbat neurtzen duzu?

E. 1'80.

G. Zein postutan jokatzeko duzu?

E. Pibot.

G. Gogoratzen dituzu denboraldi honetan egindako saskiratzeak?

E. Bai. 304. Altuerak asko laguntzen du eta erreboteak jasotzerako garaian nahiko ondo moldatzen naiz. Dena dela taldekideen laguntza beharrezkoa da hori guztia lortzeko.

G. Noiz amaituko duzue denboraldia?

E. Bergarako jailetan. Zortzi partiduko inguru gelditzen direla uste dut.


KARTELDEGIA
ESKUBALOIA
Iraundi Bergara-Ormaiztegi

Senior maila

Zapatua. 17:45. Kiroldegia

PILOTA

ELGETAKO 4 1/2 TXAPELKETA, ETB KANTXA SARIA

23 urtez azpikoak

Eguakitza. 19:30. Pilotalekua:

- Rodrigex-Odriozola
- Intxausti- Irureta
- Gabirondo-Zelaia

Domeka. 11:00. Pilotalekua:

- Redondo-Lasagabaster

Kadete maila

Domeka. 11:00. Pilotalekua:

- Agirre-Elizburu
- Biteri-Alberdi

FEDERAZIO TXAPELKETA

Eguakitza. 19:30. Pilotalekua:

Bergara-Zaldibi

Junior semifinalak

Bergara-Altzarra

Senior maila

BERGARA HIRIA SARIA

Martitzena 19:30. Pilotalekua:

Promesak

- Zubieta eta Zapiain
- Erauskin eta Alzola

Senior maila

- Txafe eta Iparragirre
- Etxaniz eta Txikito IX

Eguena. 19:30. Pilotalekua:

Promesak

- Erroizenea eta Argote
- Antxia eta Peñagarikano

Senior maila

- Otaegi-Idiabe
- Aranzeta-Gutierrez

Profesionalak

LEHEN MAILAKO

EUSKAL HERRIKO

BANAKAKO TXAPELKETA

Errandonea-Agirre

Domeka. 18:00. Pilotalekua

BIGARREN MAILAKO

EUSKAL HERRIKO

BANAKAKO TXAPELKETA

Barriola-Rai

Binaka:

- Koka eta Balerdi
- Barberito VI eta Imaz

Domeka. 18:00. Pilotalekua

Gorlako Txakur Leren VI. edizioa domekan

Pirenako burua den Pep Pares bertan izango da

Joan zen urtean ez bezala, aurtengo edizioan bergarar ordezkari bat gutxienez izango da Gorlako Txakur Leren VI. edizioan. Pirena jokatu ondoren, Axen Garitano eta bere txakurrik Gorlatik Trekutzera bitarteko 10 kilometroko ibilbidea ahalik eta denbora laburrenean egiten saiatuko dira. Lasterketa goizeko 11:00etan hasiko da eta irteera Gorlako Kantinatik emango zaio.



Gutxi gorabehera 300 bat txakurrik parte hartuko dute domekako lasterketan.

Urtero bezala, Bergarako Mushing Elkarteak arduratu da Gorlako Txakur Leren nazioarteko lasterketa antolatzeaz. Antolatzaile lanetan ibili den Julen Narbaizak adierazi digunez, "aurten ere 40-45 parte hartzaile izango dira Gorlan. Euskal Herriari dagokionez, Nafarroatik, Oñatitik, Ermuatik, Arrasatetik eta Azpeitiatik etorriko dira eta estatuari dagokionez, Galizia, Madril eta Kataluniatik. Bestalde, Frantziatik datorren taldea ere handia da". Nafarroan zaletasun handia dago txakur leren inguruan. Hauetatik asko Pirenan ibilitakoak dira eta hauek ere domekan, Gorlako ibilbidea egitera datoz.

Iaz, Goyo del Real madrildarra izan zen sailkapen orokorrean denbora onena egin zuena. 38 minutu egin zituen, errekorra eskuratu. Domekan ere, Gorlan izango da Goyo de Real. "Oso

ondo aritzen da txakurrak gidatzen. Motokrosean ibilia da eta edozein eragozpen erreztasun handiz gainditzen du. Dena dela aurten Axen ondo dabil eta aurreko postuetan egoten saiatuko dela iruditzen zait. Orain arte ez du zorterik izan".

KANI KROSSA

Antolatzaileek, gure artean ezezaguna den eta Frantziara jarraitzaile asko dituen modalitatea gehitzea erabaki dute aurten. Kani-kross deituriko modalitate bitxi hau korrika egitean datza. Mushinga eta txakurra, zoka batekin elkarlotu eta ahalik eta azkarren korrika egitea da helburua.

Aurreko edizioetan, alde batetik txakur arraza eta

modalitatea ezberdintzen zen. "Aurten mota guztietako txakurrak onartu ditugu. Ez dira nordikoak bakarrik izango. Modalitateei dagokionez, txakur kopuruaren arabera banatuko dira".



PEP PARES

Bestalde, aurtengo edizioan gonbidatu berezia izango du Gorlako Txakur Leren lasterketak. Pep Pares Pirenako burua Bergaran bisitari izango dugu. "Txakur Leren munduko pertsona garrantzitsuenetakoa da eta pozik gaude bere etorrerarekin. Pep Pares Pirenako burua izateaz gain, Txakur Leren inguruan idatzita dagoen liburu bakarraren egile da. Bertan, Bergarako lasterketa nazioarteko onenarikoen artean sailkatzen du. Ez dira asko nazioarteko mailan egiten diren lasterketak. Etorkizun batean liga antzerako bat antolatzea pentsatzen da baina momentuz ez dago ezer zehaztuta". **B**



Jon Andueza Realeko jokalaria bergararra Anoetako finala baino lehenago beroketa-lanak egiten.

BIBI ANDUEZA

Athletic garaile Agorrosinen eta Anoetan Realaren txapelketan

Athleticeko gazteak Bartzelona taldearen kontrako partiduan garaile izan ziren joan zen domekan Agorrosinen. Zuri-gorriek, 3-0 irabazi zieten kataluniarrei. Bestalde, Realak antolatutako txapelketa honeta-

ko finala Athletic eta Realaren arteko derbia izan zen. Astelehenean, Anoetan jokatu zen partidua bina berdindu zuten, baina penaltietan zuri-gorriek punteria zorrotzagoa erakutsi zuten eta txapelketako sari nagusia

Bilbora joan zen. Realaren aldetik, Jon Andueza bergararra ikusi ahal izan genuen txapelketa osoan zehar. Jonek lan bikaina egin zuen txapelketan, finalean jaurtitzea tokatu zitzaion penaltia huts egin bazuen ere.

Bergarako Lagunak oporrak maiatzera arte

Areto futbolêko Bergarako Lagunak taldeak 2. itzulia amaitu berri du. Bergararrak, hamar taldeen artean, bosgarren gelditu dira sailkapen orokorrean. Maiatzaren 8an, kopa jokatzeari ekingo diote.

Haurren pilota txapelketako finalak

Haurren pilota txapelketaren baitan, alebin eta infantil mailetan jokatu ziren finaletan Iparragirre eta Alberdi nagusitu ziren. Alebin mailari dagokionez, Iparragirrek 18-12 irabazi zion Muguruzari. Infantiletan berriz, Alberdi 18-17 nagusitu zen Altunaren kontrako partiduan.

Ibai Rodriguez txapeldun Uzarragako igoeran

Erreterriako Ibai Rodriguez izan zen aurtengo Uzarragako XXIV. Igoera irabazi zuena. Lau laguneko ihesaldia aprobetxatuz, Saunier Duval taldeko txirrindularia bakar bakarrik iritsi zen helmugara, atzetik zetorren taldeari 12 segunduko aldea aterata. Guztira 145 txirrindulari elkartu ziren irteeran, baina 46 besterik ez ziren helmugara iritsi. Iaz txapeldun izan zen Ander Agirrek seigarren postua eskuratu zuen, irabazlearengandik 17 segundura geldituz.



Simon Arrieta plaza 2A behe ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Fraisko zurin pisua salgai. 943 76 15 40.

Masterrekan pisua salgai. 943 76 17 49.

Elorregi. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

Osintxu. 943 76 49 74.

Martoko. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

Soroluzen. Berriztua eta amueblatua. 943 75 23 88.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamendua Zarautzen (abuztuan ez). 943 76 42 05.

ERRENTAN HARTZEKO

Etxea alokatu nahi nuke. 943 76 18 96.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 85 36 99.

Pisua hartuko genuke

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

alokairuan. 943 76 26 82 /943 76 57 34.

ETXE KONPARTITUAK

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. 943 76 71 93.

Gela nahi nuke pisu konpartituan. 943 27 77 80.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artzamen din. 943 76 06 25.

Garajea salgai Iburgarain. 943 15 15 81.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Matzerekan. 945 23 48 07.

Garajea salgai Aranerrek. 943 76 28 07.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

Garajea salgai Iburgarain. 943 76 23 53.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 23 53.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lau gelako lokala Koldo Eleizalden, bulegotarako. 943 76 58 91.

S. Pedro. 943 76 10 39.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauez).

4. LANA

ESKAINZAK

Erizain titulatuak gaixo-

ak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxe lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Aria).

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxe lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsalde lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxe lanak. 943 76 42 63.

Astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan egingo luke. 943 76 53 71 (Maite).

ESKAERAK

Senar-emazte edadetuak zaintzeko pertsona behar da. 629 26 39 45

Uztailen eta abuztuan neska behar da etxe lanetarako. 943 76 22 39 (Miren).

Goizez etxe lanetarako emakumea behar da.

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

AROSZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

**JOXAN
ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

Autoduna. 943 76 27 04 (19:00etatik aurrera).

Goizez etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko emakumea behar da. 943 76 44 08.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filolojian lizenziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

DHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

DHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Majisteritzako ikasleak DHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Yamaha 250 cc. motora, beltza eta kromatua. 943 76 28 92.

Suzuki GSX 750 moto-

rra salgai. Prezio ona. 610 20 82 78.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Aire egokituia. Kilometro gutxiarekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea (SS-W) prezio onean salgai. 943 76 63 29.

Renault Super5 (SS-AB) egoera onean salgai. 943 79 68 75.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesel egoera onean salgai. 617 20 66 29.

Naus 485 karabana, 5 plaza. 943 76 44 07.

7. ANIMALIAK

SALDU

Ardi txakurkumeak (arrak eta emeak).

Deitu 943 81 56 20 telefonora.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

Hamsterkume indioak salgai. 943 76 43 70.

BESTELAKOAK

Bi artzai txakurkume opari. 943 76 35 58.

Artzai txakurkumea (emea) oparitzen da. 943 76 12 93.

8. DENETARIK

SALDU

Opera eta kamara musika CD bildumak salgai. 943 76 58 05 (Juanje).

Trabesiako eskiak salgai. 943 79 06 33.

Altzariak salgai, berriak. 619 80 26 06.

Berogailua-akumuladore salgai. 943 76 44 19.

Errepideko bizikleta (8-12 urtekoentzat). 943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje

(marineroa eta neskati-larena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea salgai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera onean salgai. 943 76 13 53.

Espasa Calpe hiztegi-entziklopedikoa. 27 tomoko bilduma. 943 77 05 95 (Jacinto).

Kalentadore termo berri bat saldu nahi nuke. 943 76 30 83 (Juli).

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Logelarako altzariak salgai. Egoera onean. 943 76 06 78 (21:00etatik aurrera).


Altzari klasikoak salgai. 943 76 17 08.

GALDU

Urrezko ezkontza-eraztuna galdu dut. "15 de octubre de 1960" idatziduna. 943 76 10 18.

BESTELAKOAK

Egunero, 14:30etan, Zumarragara kotxez joaten den norbaiten berri izan nahi nuke. 943 76 17 62 (Miren).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

IGELTSEROA

Ibai ezkeraldea. 16196/3

HARAKINA

Ibai ezkeraldea. 17558/6

FORJATZAILEA

Durungaldea. 17758/5

ARKITEKTUA

Plentzia-Mungia. 17890/2

KOMERTZIALA

Errioxa Arabarra. 17892/1

KOMERTZIALA

Bilbo. 17921/1

GALDARAGILEA

Mungia. 18015/6

IGELTSERO PIOIA

Durungaldea. 18065/3

DIESEL MOTOREEN

MEKANIKARIA

Lemona. 18041/3

MEDIKUA

Bilbo. 18110/3

MANTENIMENDU-RAKO TEKNIKARIA

Gasteiz. 18023/1

EREDUGILE/PLAKA

INSTALATZAILEA

Ibai ezkeraldea. 18114/3

INFORMATIKA

TEKNIKARIA

Bilbo. 18116/2

HIRU HIZKUNTZAKO

IDAZKARIA

Deba Garaia. 17521/1

KOMERTZIALAK, 2

Ibai ezkeraldea. 17698/3


Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95



☎ 943 76 20 61

Bolu

liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurrira

Zurezko artikuluak

Bergarako oleo eta lumatxoak

Erakusketa


Boni Laskurain 4, behea
Denda
Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

Jaietako txekorketako pintura lehiaketa eta Bergara Hiria argazki lehiaketa abian dira


Euskara Zerbitzuak antolatzen duen Literatura lehiaketako epea amaitzean

Zezenzaleak taldeak II. Abdon Juaristi pintura lehiaketa deitu du. Bestalde, Bergarako Udalak Bergara Hiria argazki lehiaketarako deialdia egin du eta, horrez gain, XIV. Literatura lehiaketarako lanak aurkezteko epea datorren eguakitzean, apirilak 16, amaituko da.

Udaleko Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen duen lehiaketan zortzi urtetik gora izan eta Bergaran jaio, bizi edo lan egiten dutenek har dezakete parte. Adinaren arabera bost talde izango dira. Gazteenek ipuinak idatzi beharko dituzte eta 13 urtetik gorakoek, berriz, ipuinak zein olerkiak. Lanak entregatzeko epea, esan bezala, datorren eguakitzean amaituko da eta argibide gehiago nahi izanez gero Udaleko Euskara Zerbitzura jo daiteke. Sari banaketa maiatzaren 29an egingo da.



Goian, Abdon Juaristik 1994, 95, 96 eta 97an egindako kartelak.



Bestalde, Zezenzaleak taldeak Bergarako jaietan antolatzen duen txekorketa iragartzeko kartelerako pintura lehiaketa antolatu du aurten bigarren aldiz. Bertan ez da adin edo nazionalitate mugarik ezarri eta, beraz, edozeinek har dezake parte.

Gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu bakoitzak. Kartelen gaia zezenak eta Bergara izango da, estiloa eta teknika libreak izango dira eta lanak markorik gabe eta euskarri gogorrean auzetu beharko dira. Gutxienez 55x46 eta gehienez 146x114 zentimetro neur-

tu beharko dute lanek. Lanak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira apirilaren 20tik 30era arte, biak barne, eta sari banakarra emango da, 150.000 pezetakoa. Lazko irabazlea Juan Jose Altuna pintorea izan zen.

Bestalde, Bergarako Udalak antolatu duen Bergara Hiria argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea maiatzaren 11n amaituko da. Lehiaketa hau Argizaiola sari-ko sailkapenerako baliagarria da. Zuri-beltzeko zein koloretako launa lan aurkeztu ahal izango dira eta lanak 30x40 zentimetroko kartulinetan aurkeztu beharko dira.

Sari banaketa maiatzaren 28an Kultur Etxean egingo da. Lau sari banatuko dira: lehenengo hiru-erdi eta Bergarako onenari.

SOZIEDAD ALKOHOLIKA BERTAN BEHERA

Aurreko BERRIGARAN Soziedad Alkoholikak gaur, eguakitzan, Jam aretoan bideoa grabatuko zuela aurreratu genizuen. Halere, gasteiztarrek arazoren bat izan dute eta ezin izango dute zuzeneko bideoa Bergaran grabatu. Beraz, bertan behera geratu da emanaldia eta grabazioa. **B**



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoo dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA

Aranzadi Ikastolako Petu Petuan taldea irabazle "Bergara ezagutzen" lehiaketako lehen edizioan

Petu Petuan taldeak irabazi du "Bergara ezagutzen" txapelketako lehen edizioa. Aste Santuaren atarian Hik Galdeu taldearen kontra jokaturako finalean 213 eta 203 nagusitu zen. Bi taldeak oso ondo aritu ziren eta, azkenean, proba grafikoan ateratako aldeari esker Hik Galdeu izan zen garaile.

Finaleko egunean, parte hartzaileen eta Kartzela Zaharrean elkartutako ikusle ugarien artean sortutako giroa bikaina

izan zen. Lehenengo frogan, galderetan, Hik Galdeu hobeto ibili zen historia eta arteari buruzko galderei esker eta 168 puntu lortu zituen; Petu Petuan taldeak, ostera, 163 lortu zituen. Proba grafikoan, berriz, Petu Petuan taldeak 30 puntu lortu zituen eta Hik Galdeu-k, 15. Kanpoko jokoan, azkenik, bi taldeek hogeina puntu lortu zituzten.

Saioaren amaieran sariak banatu ziren. Talde irabazleak astebukaera bat igaroko du aterpetxe batean natur-kirolak praktikatzeko. Horretaz gain, txapelkun eta

txapeldunorde geratu diren jokalariek guztientzat kamisetak banatu zituzten eta hirugarren eta laugarren sailkatuentzat ere sariak izan ziren.

Aurten lehen aldiz antolatu da "Bergara ezagutzen" lehiaketa eta antolatzaileek, Jarduneko gazte taldekoek, oso balorazio positiboa egin dute. "Parte hartzea handia izan da, 116 gaztek hartu baitute parte txapelketan eta, bestalde, taldeek asko ikasi dute galderak prestatzeko gaiak landu behar izan dituzte eta" esan digu Nekane Gabilondo Jarduneko dinamizatzaileak. Datorren urtean bigarren edizioa antolatuko dutela aurreratu digu Nekane. Edozein modutan ere, aldaketa batzuk egingo dituzte ahal den neurrian txapelketa hobetzeko. Txapelketa aurrera ateratzeko lagundu dien guztiei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek.

SAILKAPEN NAGUSIA

1. Petu Petuan
2. Hik Galdeu
3. Errastisklas
4. Eli
5. Gotxus
6. Jotapurtu
7. Eztakit
8. Zerok
9. Katamixartsua



Petu Petuan eta Hik Galdeu taldeetakoak, final ostean, Izaro Aperribai aurkezlearekin.

Ψ

NARE
psikologoak

HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Isasi 17, 1-B EIBAR
Tf. 943 20 05 95

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Fraideak edo monjak bizi diren komentua. 2. Jausi. Zirt... erabaki. 3. Neu. Oinarrizko edari. 4. Toka, du. Basapiztimota. 5. India. Lepo. Bromoa. 6. Zaldiz tiratutako ibilgailuak. 7. Nor, pluralean. Ez emea. Rutenioa. 8. Berrogeita hamar. Iparraldean, orain. Modua. 9. Nafarroako ibaia. Kolore-mota. 10. Barazki-mota. Gaiak.

Goitik behera

1. Mendigoizalea. 2. Pluralean, animalia adarduna. Kontsonante errepikatua. 3. Zeinek. Kontsonantea. Betekada. 4. Garai. Donostiako auzoa. 5. Sinatzearen ondorioa. Bokala. 6. Tona. Izurriteak. 7. Ukatzeko. Arraza. Jainko egiptoarra. 8. Egun. lodoa. Gaixo. 9. Barre xumea. 10. Kanpo, landa. Uztaia. Potasioa.

Soluzioa

10. At Arkua. K.
9. Imbarrea
8. Ez. Enda. Ra. 8. Gaur. I. En.
5. Sinadura. E. 6. T. Izurriak.
3. Nork. L. Oka. 4. Aro. Igar.
1. Mendizalea. 2. Oreinak. Zz.
Goitik behera
9. Eka. Aro. 10. Aza. Ekaiak
7. Ak. Ara. Ru. 8. L. Ora. Era.
5. In. Idun. Br. 6. Zaligurtiak.
3. Neront. Ur. 4. Dik. Azeria.
1. Monastegia. 2. Erori. Zart.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibiar



Ezkerrean, Barrenkalea gaur egun; eskuman, Arrese zeharbideko kartelak erakusten duen bezala, Aberri Eguna ospatu zen lehen urtean. Zein urte izan zen?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zenbat bazkide ditu gaur egun San Joxepe jubilatuen elkarteak?
A- 1.450
B- 1.600
C- 2.000
2. Aurki jarriko da abian Gazte Zerbitzua. Zein izango da zerbitzuaren arduraduna?
A- Rufina Olasagasti
B- Maider Egües
C- Maider Sedano
3. Domekan jokatuko da txakur leren VI. edizioa Gorlan. Zein izan zen irabazle iaz?
A- Goyo de Real
B- Pep Pares
C- Axen Garitano

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Tartufo** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Juan Karlos Hervasentzat** izan da. Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Juan Karlosi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Oxirondo plaza**
Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonia: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

San Juan auzoa,
Elgetarako bidea, Bergara.
Tf. 943 76 35 51

Mari Mar Fernandez urretxuarrak (29 urte) dagoeneko 10 urte daramatza Zer Nai kafetegian lanean. Barran lanean jarduteko psikologia piskat jakin behar dela dio eta egunen batean Guardiola ezagutzearekin amets egiten du.

Mari Mar Fernandez

Txikitan zer izatea nahi zenuen?

Azafata.

Zein kualidade behar da barran lan egiteko?

Psikologia pilo bat...

Lanik gorrotagarriena?

Kamarak betetzea.

Eta atseginena?

Bezera batzuekin berba egitea.

Lana, egunez ala gauez?

Egunez nahiago.

Laneko ordu hilak, zertan?

Irakurtzen.

Tabernan musika ala telebista?

Musika.

Gustoko talde bat?

La Union.

Nor gustatuko litzaizuke tabernara sartzeari?

Guardiola futbolaria.

Eta zer aterako zenioke?

Laranja zumo natural bat.

Gehien eskatzen dizuten edaria?

Gin tonic-ak.

Eta ondoen gertatzen duzuna?

Kafea izotzarekin.

Gustoko edari bat?

Rona.

Asteko egun bat?

Zapatua. Jai daukat eta Donostiara joatea gustatzen zait.

Kirolrik egiten duzu?

Bai, aerobica eta bizikleta.

Animalia bat?

Txakurra. *Nor izeneko cockerra daukat.*

Gustoko jantzi bat?

Prakak.

Mania bat?

Haginak sarritan garbitzea.

Bestengan gehien apreziatzen duzuna?

Egiazaletasuna.

Gizon batengan zertan fijatzen zara lehenbizi?

Begietan.

Zure gorputzeko atalik gustokoena?

Hankak.

Bota dizuten lorarik politena?

Behin batek "Estas mas bien hecha que el catecismo" esan zidan.

Egindako azken oparia?

Liburu bat, lagun bati.

Eta jasotako azkena?

Mutilak oparitu zizkidan belarritakoak.

Zodiako zein zeinutakoa zara?

Cancer, aldartetsuak omen gara.

Udaberriaren etorrera igarri duzu?

Bai, alergikoa naiz eta...

Zer egin duzu Aste Santuan?

Lana baina laister Tunisiara noa.

Nork irabaziko du Euskadiko Itzulia?

Jalabertek, baina Olanok irabaztea nahi nuke. **B**



MARGA
jantzidenda

San Pedro 20. Bergara.
Tf. 943 76 05 37

**Ezkontzetarako,
jaunartzetarako
eta egunero sport eta
dotore ibiltzeko jantziak**

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1




OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxes: 943 76 20 29



LASA
Jatetxea


MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32



Musika Bandan hasi berriak

Orain dela 13 urte albiste izan zen musikari gazte hauek Udal Musika Bandan debutatzea. El Correo Español egunkarian, 1986ko uztailaren 2ko Bergarako kronikan, Jose Mari Urrutia kazetariak horren berri eman zuen, argazki eta guzti (goiko argazkia ere ziurrenik berak ateratakoa izango da). Bergarako Udal Musika Bandak uztailaren 4an parte hartu behar zuen Diputazioak antolatutako Banden VI. Jaialdian, Getarian, eta huraxe izan zen argazkikoek Bandarekin jo zuten aurreneko aldia. Miguel Gonzalez Bastida orduko zuzendariaren esanetara, Bandak Mendelsshon, Luigini, Guridi eta Miguel Gonzalez Bastida beraren piezak eskaini zituen Getariako San Salvador parrokian.

Jose Mari Urrutiak adierazitakoaren arabera, kontzertuak ikusmin dexente piztu zuen herrian, gazteen debuta zela eta. Nolabait Bandaren berriztea suposatu zuen musikari hauek Bandarekin jotzen hasteak. Gaur egun ere argazkiko batzuk Bandan jarraitzen dute. Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara, Errekalde Jauregian ateratako argazkian agertzen direnak:

Zutik: Unai Lizarzaburu, Aitor Elorza eta Mikel Berasategi.

Jarrita: Jabi Arrondo, Jesus Mari Arriaran eta Aitor Ibarra.

Argazkia: Jabi Arrondo.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34



zumelaga

JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zimurren kontrako Programa Berezia Retinolarekin



ZIMUR SAKONAK ZUZENTZEA **%73**

ESPRESIO-ZIMURAK
ZUZENTZEA **%73**

ZIMUR TXIKIAK ZUZENTZEA **%82**

AZALAREN TONUA HOBETZEA **%76**

ONGIZATEA ETA HIDRATAZIOA
HANDITZEA **%94**


ITXURARAKO ETA
UKIMENERAKO ALDEA **%100**

ADIN TARTEA: 37-73 URTE

VIVIANCE



GERMAINE DE CAPUCCINI




ni Laskurain 3 Telefonoa: 943 76 35 71

Giartzu

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RKAUZ

FAGOR

ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51

ARETXABALETA

SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55

ARETXABALETA